

XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

416

3/2014 DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean eta jakineko baimen batzuk dituzten aldietan jasoko dituzten lansariak eta borondatezko hobekuntzak onartzeko dena.

Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, oinarritzko arau gisa, aldaketa sakonak sartu zituen aldi baterako ezintasun-egoeran dauden langile publikoen lansarietan.

Zehazki, administrazio-mutualismoari eta mutualismo judizialari atxikitako langile publikoei dagokienez, 9. artikulua xedatzen du ze lansari-portzentaje jasoko duten langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran. Hona hemen portzentajeok: ehuneko berrogeita hamar (% 50) lehenengo hiru egunetan; laugarren egunetik hogeigarrenera, ehuneko hirurogeita hamabost (% 75), eta hogeita batgarren egunetik aurrera, ehuneko ehun (% 100).

Neurri horiek 2012ko urriaren 15etik aurrera jarri ziren indarrean MUFACE Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitatera atxikitako langileentzat, egun horretatik aurrera hasitako aldi baterako ezintasun-egoerei dagokienez, eta, MUGEJU Mutualitate Orokor Judizialera atxikitako langileei dagokienez, berriz, 2013ko ekainaren 29tik aurrera hasitako aldi baterako ezintasun-egoerei aplikatu zitzaizkien neurri horiek.

Gizarte Segurantzako erregimen orokorrera atxikitako langile publikoei dagokienez, aipatu uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretu horrek xedatzen du herri-administrazio bakoitzak zehaztuko dituela –dituen eskumenen eremuan– beraren zerbitzura dauden langileek jasoko dituzten lansariak, betiere aipatu 9. artikuluan ezarritako mugak gainditu gabe.

Era berean, Errege Lege Dekretu horrek bertan behera utzi zituen aipatu artikuluko horretan xedatutakoaren kontraesanean dauden akordio, itun edota hitzarmenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legeak bertan behera utzi zituen aldi baterako ezintasun-egoeretan emateko prestazioetan borondatezko hobekuntzak jasotzen zituzten akordio, hitzarmen eta itunak (19.11 artikulua).

Aipatu 19.11 artikuluko hori garatzeko onartu zen urtarrilaren 31ko 9/2012 Dekretua, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrera atxikitako langile publikoei aldi baterako ezintasun-egoeran ordaindu beharreko lansariak eta borondatezko hobekuntzak ordaintzeko baldintza zehatzak arautzen dituena.

Zehazki, aipatu 9/2012 Dekretuaren eranskinaren bosgarren puntuan ezartzen da Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrera atxikitako langileek euren lansarien portzentaje hauek jasoko dituztela: lehenengo egunetik hirugarrenera, ehuneko berrogeita hamar (% 50), urteko lehenengo aldi; ehuneko berrogei (% 40) urteko bigarren aldi, eta hurrengo ezintasun-egoeretan osagarria jasoko da laugarren egunetik aurrera; laugarren egunetik hogeigarrenera, ehuneko hirurogeita hamabost (% 75); hogeita batgarren egunetik berrogeita laugarrenera, ehuneko laurogeita bost (% 85), eta, berrogeita bosgarren egunetik aurrera, lansarien ehunetik ehun (% 100).

Beraz, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean dauden langile publikoek MUFACera eta MUGEJUra atxikitako langileek izan duten murrizketa-portzentajea baino handiagoa jasan dute.

Dekretu honen helburua trataera desberdin hori deuseztatzea da, gertakizun arruntengatik aldi baterako ezintasun-egoeran dauden Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile guztiek lansari-portzentaje berdinak jaso ditzaten; era berean, lansarien ehunetik ehunekoa jasotzeko eskubidea emango duten aldi baterako ezintasun aldiak arautzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legeak –hamargarren xedapen gehigarrian– bere horretan mantentzen du aldi baterako ezintasun-egoeran prestazioen borondatezko hobekuntzak jasotzen dituzten akordioen, itunen eta hitzarmenen etendura, abenduaren 23ko 6/2011 Legearen 19.11 artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartu zituen.

Era berean, baimena ematen dio Jaurlaritzari, Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Administrazio de Justizia Sailak egindako proposamenez, gaia berriro arau dezan.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Finantzarako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honen aplikazio-eremuko langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran jasoko dituzten prestazio-osagarriak eta lansariak arautzea da dekretu honen helburua, kasu bakoitzean Gizarte Segurantzako erregimen desberdinen araudi erregulatzailerak horretaz ezartzen duenaren arabera.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren zerbitzura diharduten langile publikoei aplikatuko zaie dekretu hau, betiere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua.– Gertakizun arruntengatik aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrera atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren zerbitzura diharduten langile publikoek jasoko dituzten lansariak.

Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrera atxikitako langile publikoek Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarriak jasoko dituzte, euren lansarien portzentaje hauetara iritsi artekoak:

1.– Lehenengo hiru egunetan, ehuneko berrogeita hamar (% 50).

2.– Laugarren egunetik hogeigarrenera, egun biok barne, ehuneko hirurogeita hamabost (% 75).

3.– Hogeita batgarren egunetik aurrera, egun hori barne, ehunetik ehun (% 100).

3. artikulua.– MUFACera edo MUGEJUra atxikitako langile publikoen lansariak.

Erregimen horietara atxikitako langile publikoek, gertakizun arruntengatik aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean, euren lansarien portzentaje hauek jasoko dituzte:

1.– Lehenengo hiru egunetan, ehuneko berrogeita hamar (% 50).

2.– Laugarren egunetik hogeigarrenera, egun biok barne, ehuneko hirurogeita hamabost (% 75).

3.– Hogeita batgarren egunetik aurrera, egun hori barne, ehunetik ehun (% 100).

Gainera, Gizarte Segurantzako erregimen berezi bakoitzarentzat araututako laguntza emango zaie, araudi horrek ezarritako epeetan.

4. artikulua.– Salbuespenezko egoerak, non Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek euren lansarien ehuneko ehun (% 100) jasoko baitute.

Dekretu honen aplikazio-eremuan dauden langileek euren lansarien ehuneko ehun (% 100) edo ehuneko ehun (% 100) horretara iritsi arteko osagarria jasoko dute, honako kasu hauetan:

a) Erditzea, adopzioa, harrera, aitasuna, haurdunaldiagatiko arriskua edota edoskitzaro naturalak iraun bitarteko arriskua direla-eta emandako baimenetan.

Kasu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoen lan-baldintzak arautzen dituzten akordio edo hitzarmen kolektiboek xedatutakoaren arabera arautuko dira aurretzean ere.

b) Lanbide-gertakizunengatik sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.

c) Haurdunaldiaren ondorioz sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.

d) Ospitaleratzea edo ebakuntza kirurgikoa egitea dakarten gertakizun arruntengatik sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.

5. artikulua.– Epeak zenbatzea.

Dekretu honetan aipatzen diren egunak egun naturalak direla ulertuko da.

6. artikulua.– Garapen-ahalmena.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak jarraibide bat prestatuko du dekretu hau garatzeko.

Langileak kudeatzeko organoek jarraibideak eman ahalko dituzte dekretu hau aplikatzeko, eta, jarraibide horiek aurreko paragrafoan aipatzen den jarraibidearen edukia eta printzipioak errespetatu beharko dituzte.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako aldi baterako ezintasun aldiei aplikatuko zaie, aurreikusitako lansari-portzentajeak edo -osagarriak ordaintze aldera.

Era berean, 2014ko urtarrilaren 1ean dagoeneko hasita dauden aldi baterako ezintasun aldiei ere aplikatuko zaie.

Kasu horretan, aintzat hartuko da egun horretan aldi baterako ezintasun aldiko zenbatgarren egunean dagoen, eta horren arabera aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira gastu publikoa murrizteko neurriak aplikatzeari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegorako 2012rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011

Legea garatze alderari buruzko urtarrilaren 31ko 9/2012 Dekretuaren eranskinaren bosgarren paragrafoa, bai eta dekretu honek ezarritakoa kontraesanean jartzen duten edo ezarritakoaren kontra dagoen maila bereko edo beheragoko arauak ere.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 28an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.